



Ateak erakusketa Donostiatik abiatuko da, artearen bidez indarkeria matxista ikusgai jartzeko eta gaiari buruz hausnartzeko

- Erakusketa datorren igandean, martxoak 3, inauguratuko da Anoetako Estadioan, eta gero Donostiako Udaletxera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregira eta Tabakalerara eramango da.
- Erakusketan hainbat artistak ateetan egindako 47 obra daude ikusgai; ate bat, 2018. urtean indarkeria matxistak Espainian eraildako emakume bakoitzeko.
- Ateak erakusketaren helburua biktimen oroimena aldarrikatzea da, eta gizartean arazo horri buruzko eztabaida sortzea.

Donostia, 2019ko otsailaren 28a. Gaur eguerdian, Ateak erakusketa ibiltaria aurkeztu da Anoetako Estadioan, indarkeria matxistari buruzko gogoeta eragin nahi duen proiektu artistiko bat. Prentsaurrekoan, Victoria Kanpandegi Dimension agentziako Zuzendari Nagusiak parte hartu du, ekimenaren sustatzaile gisa, eta haren ondoan egon dira erakusketan lagundu duten Jokin Aperribay Real Sociedad Fundazioko Presidenteak, Eneko Goia Donostiako Alkatea, eta Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusia. Agerraldian egon da ere Eurne Ormazabal Tabakalerako Zuzendari Nagusia, erakunde kolaboratzaile gisa.

Anoetako Estadioa izango da, hain zuzen, erakusketaren lehen pausalekua, bertan inauguratuko baita datorren igandean, martxoak 3, Realaren eta Atletico de Madriden arteko partidaren egunean. Astelehenetik aurrera, hilak 4, Donostiako Udaletxeko osoko bilkuren aretoan eta Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko arkupeetan jarriko dira ateak, eta han egongo dira, martxoaren 8ra arte. Ondoren, martxoaren 11tik 31ra arte, Ateak herritar guztiek ikusi ahal izango dituzte Tabakalera Plazan.

Erakusketak, doakoa denak (Anoetan izan ezik, non ikusteko, bazkide txartela edo dagokion sarrera erakutsi beharko baita), hainbat artistek ateetan egindako 47 obra jartzen ditu jendarean; ate bat, 2018. urtean indarkeria matxistak Espainian eraildako emakume bakoitzeko.

Donostian inauguratu ondoren, Real Sociedad Fundazioaren, Donostiako Udaletxearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tabakaleraren laguntzari esker, Ateak herri askotara eramane nahi dira, 2019. urtea amaitu arte, eta horretarako hainbat erakunderekin ari dira negoziatzen dagoeneko.

Horren harira, Ateak erakusketaren aurkezpenean, Victoria Kanpandegi Dimensioeko Zuzendari Nagusiak honako hau adierazi du: “gizartearen arazo hori ikusgai jartzeko

interesa duten erakunde guztiak gonbidatzen ditugu Dimension agentziarekin harremanetan jartzera, baldin eta erakusketa beren hirietara eramateko interesa badute". "Guk erraztasun guztiak eman nahi ditugu, Ateak ahalik eta jende gehienengana irits dadin" gaineratu du.

Erakusketa zer lekutan egongo den pixkanaka iragarriko da erakusketaren web ofizialean: www.puertas.art

Ateak proiektua

Ateak Dimension agentziak sortutako proiektu artistiko bat da, eta haren helburua genero desberdintasuna edo tratu txarra ezkutatzen dituzten eguneroko egoerak gizarteari aurrez aurre jartzea da; hala, estatistikak humanizatu, indarkeria matxistaren biktimen oroimena aldarrikatu, eta gaiari buruzko elkarrizketak sortu nahi dira, artea tresna gisa erabilita.

2018. urtean, Estatuan gizon batek eraildako emakume bakoitzeko ate bat bidali zion Dimensioek artista bati, eta horrek ate euskarri modura erabili zuen artelan bat sortzeko. Era berean, ate bakoitzaren sormen prozesua grabatu zen, indarkeria matxistari buruzko gogoeta bat egiteko, dokumental modura. Material hori guztia puertas.art webgunean jasota dago.

Ateak erakusketan eskuzabaltasunez parte hartu duten artistak honako hauek dira: Judas Arrieta, Guille Viglione, Ángela Alonso, Marcos Navarro, Marc Pe, Sortwo, Higinia Garay, Eva Mena, Fortun, Junita Makina, Veronica Werckmeister, Diego Besné, Ibai Maritxalar, Irantzu Lekue, Oscar Casla, Susi Quiu, David Tavares, Susana Blasco, Imanol Andonegi, Juan Álvarez, Amaia Arrazola, Nagore Olarra, Txemy, Woody James, Pin dbr, Xabier Anunzibai, Goretti Aranburu, Aritz Kabe, Gato Urbistondo, Natalia Albéniz, Laura Miner, Mari Matraha, María Ríos, Ramon Zabalegi, Nerea Urrestarazu, Abel Barcenilla, Belén Lucas, Haizea Merino, Miryam Artola, Iñaki J. Areizaga, Naiara Palacios, Rosario Cornejo, Nagore Legarreta, Bàlu, Iñaki G. Holgado, Paoletta Balmelli, eta Garikoitz C. Murua.

Gipuzkoako erakundeak bat eginik indarkeria matxistaren kontra

Ateak erakusketaren aurkezpenean, Jokin Aperribay Real Sociedad Fundazioko Presidenteak bere taldeak eta oro har kirolak balioak sustatzeko egin dezaketen ekarpena nabarmendu du: "futbolak gaitasun handia du gizarteari mezuak transmititzeko". Ondoren zehaztu duenez, "gure ekarpena egin nahi diogu egitasmo honen hedapenari eta biktimizekiko eta haien inguruarekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa ardatz dituen mezua zabaltzeari".

Era berean Donostiako Alkateak, Eneko Goiak, erakusketa honek gizartearen sentsibilizazioan egingo duen ekarpena nabarmendu du, "artearen bitartez, errealitate gordin bati heltzen diolako". Alkatearen hitzetan, Udaletxeko Pleno Areotan eta Udaletxeko hall-ean ikusgai izango dela erakusteka, martxoaren 4tik 8 bitartean, "emakumezkoen berdintasunaren aldarria bizi eta ozen entzungo den egunetan", hain zuzen. Ildo horretan, Goiak erantsi du "edertasunaren bidetik tamalez oraindik ere gure gizartean bizi eta ezagutzen ditugun kasuen inguruko gogoeta bat bultzatzea" dela erakusketa honen xede eta helburua.

Bere aldetik, Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak nabarmendu nahi izan du

“indarkeria matxista, modu batekoa edo bestekoa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sakonaren ondorio mingarriena da”. Gizartearen arazo bat da, lehen mailakoa, gure kulturaren sakon sustraituta dauden jarrera eta portaera batzuen ondorio. Gu guztion esku dago egunero bizi dugun errealitate hori amaituko duen eraldaketa sakona eragitea, erasotzaile eta biktima zehatzak dituen errealitate hori amai dadin”.

Edurne Ormazabal, Tabakalerako Zuzendari Orokorrak adierazitakoaren arabera, Ateak proiektua “euskal gizartearen gaitasun sortzaile eta kritikoaren garapenean laguntzeko kultura garaikidearen nazioarteko zentroak duen helburuarekin bat dator”, eta horren erakusle, Ateak Tabakalerako Plazan egongo da ikusgai, martxoaren 11tik 31ra bitartean. Ateak proiektuan parte hartuz, “Tabakalerak gizartearen erronka handiei buruzko gogoeta sustatu eta galderak sortzeko helburuan lagundu nahi du, eta erronka horien artean bereziki garrantzizkoa da emakumeen kontrako indarkeria”.

Indarkeria matxistaren datuak Espainiako Estatuan

EAEEn, 4.565 emakumek dute Ertzaintzaren babesa, indarkeria matxistaren biktima gisa; horietatik 1.472k Gipuzkoan.⁽¹⁾ Espainian, 700.000 emakumek nozitzen dituzte tratatu txarrak urtean. 2003tik 2017ra, gutxienez 921 erailketa matxista izan ziren. 2018an, 47.⁽²⁾

(1) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuak.

(2) Espainiako Gobernuaren Genero Indarkeriaren Bulegoaren datuak.

Informazio gehiago nahi izanez gero edo elkarrizketak eskatzeko, jarri harremanetan Jon Martijarekin (jmartija@dimension.es) edo deitu 658727585 telefonora.

Ateak-en sare sozialak:

Facebook.com/ProyectoPuertas.art/

Instagram.com/puertas.art

#puertasexpo #puertasart #ateak #ateakerakusketa